

Euskarazko opariak egiteko garai aproposa

"Euskarazko Produktuen Katalogoa"ren edizio berria argitaratu da, Beterri-Buruntzako udalen laguntzarekin. Eguberriotan, oparitu euskara / 8-9

Baserritik herritarren etxera zuzenean

Urnietako Adarrazpi, Errekalde, Goiburu eta Gurutzetako baserritarrek herriko plazan dute asteroko hitzordua, euren bezeroekin. OKm Urnieta ekimena bikain hasi da / 6



Euskaraldia abiatu da, abenduaren 4ra bitarte *ahobizi* eta *belarriprest* rolak indartzeko asmoz / 2



Joxe Kamio urnietarra Batallon Vasco Españolek Hendaian hil zuela 40 urte bete dira / 4-5



Errumaniako Ligan sasoi bikaina erakusten ari da Jon Gaztañaga futbolaria / 14

Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan

TRASTELEKUAk M² BATETIK AURRERA ENPRESENTZAKO BILTEGI HANDIAGOAK. ALTZARI-GORDELEKUAk.

barnE


605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus

Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!

Emakumezkoa nagusi da aurtengo Euskaraldian

Antolakuntzatik emandako datuen arabera, aurtengo izena eman dutenen %63 emakumezkoa da. Bestalde, aipagarria da izena eman duten lagunen artean %27k ez zuela aurreko edizioan parte hartu



Ahobizi eta belarriprest rolen garrantzia, zientziaren aplikazio ezagunari keinu eginez. GARBINEUBEDA

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 20an behin behineko datuak eman zituzten, eta orduko hartan 147.000 lagunek izena eman zutela adierazi zuten. Azaroaren 24ra bitarte luzatu zen izen-ematea, eta ziur datozen orduetan emango duten kopurua handiagoa izango dela. Urnietan

720 ziren, behin behineko zenbaketa egin zutenean.


Euskal Herri osoko datuak hartuta, partaide horietatik %79k eman du *ahobizi* modura jarduteko izena eta %21 aritu da *belarriprest* rolean.

Euskaraldiaren koordinazio taldean Euskaltzaleen Topagunea,

Eusko Jaurlaritzan, Nafarroako Gobernua eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Hirigune Elkargoa aritu dira, beste urte batez. Eta horiekin batera, hainbat elkarte, enpresa eta erakunderen partaidetza ere funtsezkoa izaten ari da.

Euskaraldia paparrean

Ahobizi eta *belarriprest* roletan arituko direnek txapa paparrean daramate. Andoainen azken egunetan izena eman dutenek Urrats dendan dagokion txapa jasotzeko aukera izango dute. Horrez gain, berrikuntza modura Arigunea aurkeztu dute. Euskaraz aritzeko eremua da, eta hori adierazten duen seinalea hainbat tokitan ikusgai dago.



AIURRI

Euskaraldia leihoetan


Banderatxoa eskuratzeko aukera dago Urnietan eta Andoainen. Euskaraldiarekin bat egiteko modua da. Geroz eta gehiago dira etxeetako leiho eta balkoietan ikusgai dauden banderatxoak. Baita bulego eta lan eremuan ere. Aiurri, esaterako, eskuragarri daude banderatxoak 5 euroko prezioan. Arantzibia 4-5 plazan gaude.



AIURRI

Euskaraldia segapotoan

Egunean Behin lehiaketa ezagunean Aiurri taldea sortu zuen udaberrian. Bada, aste honetan eta hurrengoan "Aiurri" taldeko kideen artean sariak banatuko dira. OKM produktu sorta izango da, eta aste bakoitzeko 2 saski banatuko dira. Lehena irabazleari, eta bigarrena zozketa bidez egingo da. 347 lagun parte hartzen ari dira.



AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Euskaraldia, atal berezia Aiurri.eus webgunean

aiurri.eus/bereziak/Euskaraldia

#AHOBIZI #BELARRIPREST

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: JM Sagaseta (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 9.700 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESA:



ANDOINGO UDALA

Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlindtasmerako Zuzendaritza

OHARRA:
Harpidedunei oharra:
Aste honetako Aiurri Andoaingo eta Urnietako etxebizitza guztietara iritsiko da. Euskaraldiarekin elkarlanean, euskararen aldeko egitasmoa gizartzeratzeko erabakia izan da. Badu bigarren helburua, harpidedun berriak erakartzea.

ZIURTAGIRIA:



Astez asteko egoera epidemiologikoa

Hiru aste beteko dira Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) neurri berriak ezarri zirenetik. Herritik haragoko mugikortasuna murriztu egin dute, eta gauez kalera irteteko debekua indarrean dago. Birusaren zabalkundea geraraztea zen helburua

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Neurri berrien helburua argia zen: egoera epidemiologikoa murriztea. Datu orokorreire erreparratuta, egoera onbideratzen ari dela argi ikusten da. Ospitaleratzeak murriztu dira, eta birusaren oinarriko birsorkuntza tasa nabarmen jaitsi da. 14 eguneko intzidentzia neurtzen duen tasa ere murriztuz doa. Hori ondoen islatzen duen herria Urnieta da, jaitsiera ikusgarria izan baita. Andoainen ere jaitsiera ematen ari da, baina ez da hain ikusgarria. Herri handiagoetan eta probintzia mailan oraindik ere nabarmen jaitsi behar da egoera epidemiologikoa.



Osakidetzako langile taldea, Anbulatorioko atzealdeko sarreran. AIURRI

Beterri-Buruntza

Lau aste bete dira eskualde osoa eremu gorrian sartu zenetik. Astigarraga izan zen lehena, Urnieta bigarrena. Eta atzetik iritsi ziren Hernani eta Andoain. Urriaren 26an jakin zen Lasarte-Oria eta Usurbil ere gorritz irudikatu zituela Osakidetzak. Duela lau asteko datuen alderaketa eginez gero Andoain, Hernani eta Lasarte-Oria herrietan intzidentzia tasa nabarmen jaitea zein zaila izaten ari den ikus daiteke. Astigarragan, Urnietan eta Usurbilen, aldiz, hobekuntza nabarmenagoa izan da.

ANDOAIN, ASTEZ ASTE

Azaroak 18-24:

- 51 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 796,25.
- ID: 0,82.

Azaroak 11-17:

- 68 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 970,22.
- ID: 0,92.

Azaroak 4-10:

- 77 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1057,21.
- ID: 1,18.

Urriak 28-Azaroak 3:

- 81 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 896,62.
- ID: 1,31.

URNIETA, ASTEZ ASTE

Azaroak 18-24:

- 13 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 306,95.
- ID: 0,58.

Azaroak 11-17:

- 6 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 533,12.
- ID: 0,32.

Azaroak 4-10:

- 27 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1647,82.
- ID: 0,59.

Urriak 28-Azaroak 3:

- 75 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 2778,68.
- ID: 1,20.



IREKIA

Ez ohiko Eguberriak

Aurreko asteetan iradokitzen hasi ziren, eta astearte eguerdian asmo horretan sakondu zuen Eusko Jaurlaritzak. Aurtengokoa ez ohiko Eguberria izango da, indarrean dagoen araudia ez delako oso bestelakoa izango. Alegia, jende pilaketak saihestu beharko dira eta gauez kalean ibiltzea debekatuta egongo da. Horrez gain, eta beharbada nabarmenena, Eguberrietako ospakizunetan gehienez ere elkartu daitekeen jende kopurua 6koa edo 10koa izango da.



IREKIA

Ospitaleratzeak beheruntz doa

Azaroaren 15ean 516 lagun zeuden Osakidetzam, Koronabirusak jota. Azaroaren 24an, aldiz, 412 lagun ziren. Zortzi eguneko epean jaitsiera ia %20koa izan da. Jende asko dago ospitalean, baina joerak erakusten duena baikor egoteko modukoa da.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabaldutako datuak eguerdiko, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**



andoaINDARRA
euskaraz

Duela 40 urte erahil zuen BVEk Joxe Kamio

40 urte bete ziren azaroaren 23an Batallon Vasco Español erakundeak Joxe Kamio urnietarra eta Jean Pierre Haramendi hendaiarra hil zituela Hendayais tabernan, Hendaian. Egileak Irungo mugan atxilotu zituzten, baita azkar asko aske utzi ere



Joxe Kamio urnietarra. KAMIO

Xabier Lasa URNIETA

1980ko azaroaren 23 hartan atentatuaren hiru egileak Irungo mugan atxilotu zituzten, baita azkar asko aske ere. *Billy el Niño* eta Ballesteros komisarioei hots egin ostean libre geratu ziren hirurak. Estatu-aparatuen inpunitatea agerian uzten duen kasua da, ofizialki errudunik gabe jarraitzen duena.

Joxe Kamio Larrañaga Urnietako Babiloni baserrian jaio zen, 1928ko otsailaren 28an. Aita, Joxe Mari Kamio Azurmendi Portxeta baserrian jaioa zen, eta ama, Bittori Larrañaga Errarte, Bizkaiko Elorrio herrian. Anai-arrebak, berriz: Luis (1923), Gloria (1925) eta Gumersinda (1930). Aitak telefono lineak konpondu eta berriak jartzten zituen Buruntzaldean eta Arano-Goizueta aldean. 1936an, familia Hernanira bizitzera joan zen.

Joxe gaztetxo zela, landaregintzan aritu zen Pagolarekin eta gero tarte batean, aitarekin telefono konpainian. 1948an, hogeitertekin, Oiartzungo

Arkalera soldaduskara joan zen arte. Han, ofizial baten ezinikusia jasan behar izan zuen; behin, hark zartako bat eman zion, baita Joxek itzuli ere. Ihesari eman zion, eta mugaz beste aldera pasa. Landetan basoan lanetara joan zen, eta gero Hendaian bizitzen jarri zen. Han, Iñaxio Barkaiztegi adiskide urnietarraren laguntza jaso zuen; 36ko gerran, Iparralden babesatopatu behar izan zuen Barkaiztegi, faxistek bere aita eta anaietako bat erail eta gero.

Erregularizatu gabeko errefuxiatua izaki, Kamio atxilotu egin zuten halako batean. Frantziako Legiora edo Espainiaratzea aukeran jarri zioten. Lehen aukerari heldu zion, frankisten eskuetan bukatu ez beste edozer gauza egiteko prest baitzegoen. Horrela, Indotxina (1946-1954) eta Algeriako (1954-1962) gerra kolonialistetan ibili zen. Frantziako milaka soldadu hil ziren horietan, baina onik irten zen Kamio. Behin itzulita, frantziar naziotasuna eman zioten. Frantziako estatuko paper administratiboez gain, abokatu baten bidez soldaduskan egindakoa gatik jaso zezakeen zigorraren indultua ere lortu zuen Estatu espainiarrean. Harrezkero, ama eta familia bisitatzerantz Hernanira etortzen hasi zen.

1980KO AZAROAREN 23AN HENDAYAIS TABERNAN KAMIO ETA HARAMENDI TIROKATU ZITUZTEN

1980ko atentatua

1980an, 54 urte zituela, Hendaian bizi zen Tere Osa emaztearekin eta Alex eta Mari Nöelle seme-alabekin; tailer batean egiten zuen lan. Asteburuetan, Hendayais tabernan hitzordua edukitzen zuen adiskideekin, kartetan jokatzeko. 1980ko azaroaren 23an, igandearekin, arratsaldeko zazpi eta erdietan, bi pertsona armatuk tabernan sartu eta tiroka ekin zioten han bilduta zeuden guztien aurka. Bi pertsona erail zituzten, Joxe Kamio eta Jean Pierre Haramendi, eta zortzi zauritu: Juan Jose Inziarte, Imanol Sein, Louis Berlany, Louis Humbert, Leon Irazoki, Roger Carrigues, Pedro Tortosa eta Michel Imaz.

Giro euskalduna izaten zen nagusi taberna horretan, eta bezero asko errefuxiatuak izaten ziren. Nahiko argi geratu zen eraso indiskriminatua izan zela, euskal errefuxiatuengan ez ezik inguruko jendearengan ere mina eragin eta izua zabalitzeko.

Bikote tirokatzaileak hirugarren laguna kalean zain zeukan Renault 18 berde batean, eta ziztu bizian mugarako Irungo bidea hartu zuten. Frantziako Poliziaren muga-kontrola autoarekin aurretik eraman ostean, Irungo eremuan lehendik apar-

ATENTATUAREN EGILEEK IRUNGO MUGAKO BIDEA HARTU ZUTEN, ETA BERTAN ATXILOTU



Kamio eta Haramendiren gorpuak, Hendayais tabernan. Argazki gehiago aurki daitezke Aiurri.eus gunean. AFP

katuta zeukaten Renault 5aren kontra jo zuten. Alde bateko eta besteko polizien arteko liskarra gertatzen ari zela, hiru lagunek Jose Antonio Gonzalez Pacheco *Billy el Niño* komisarioarentzat lanean ari zirela eta hari deitzeko eskatuz telefono bat eman zieten Espainiako poliziei. Horrela, gauerdialdera, Irungo polizia buruak Manuel Ballesteros Terrorismoaren kontrako Aginte Bakarreko buruarekin kontaktatzea lortu ahal izan zuten, eta lasterrera, hirurak aske geratu ziren. Gilbert Perret, Mohamed Khier Mehmed eta Vittorio Aldo mertzenarioak ziren, estatu aparatuen zerbitzura ari zirenak. Hilketak Batallon Vasco Español erakunde armatuak hartu zuen beregain.

Liskar diplomatikoa eragin zuen kasuak, Frantziako gober-

nuak Espainiakoari azalpenak eskatu baitzizkion. Nahiz eta denboraren joanarekin itzaltzen joan zen hasierako zalaparta, estatuen artean izan ohi diren era askotako hartu-eman interesatuak zirela medio.

Ballesteros, epaituen aulkian

Kasua epaitegietara eraman zuten, eta Miguel Castells abokatuak eraman zuen herri akuzazioa. Pau hirian lehenbiziko epaiketa egin zuten, 1983an; Ballesterosi deklaratzeko deitu zioten, baina ez zen agertu. Guztira, Frantziako Justiziak sei eskari zitazio egin zizkion; Frantziako Atzerri Gaietarako ministroak ere Espainiako gobernuari egin zizkion eskakizunak kasua argitzeko, baina alferrik izan zena dena.

1985ean Donostiako Auzitegian bigarren epaiketa egin zen, baina orduan ere Ballesterosek ez zuen hiru lagun iheslarien izenik eman, argudiatuz kolaboratzaile sekretuak zirela eta segurtasunagatik ezin zituela haiek identifikatu. Justiziari laguntzarik ez ematea leporatuta,

GAUERDIAN IRUNGO POLIZIA BURUAK ASKE UTZI ZITUEN HIRURAK, MADRILDIK DEI BAT JASO OSTEAN



Joxe Kamio Larrañaga Urnietako Babiloni baserrian jaio zen, 1928ko otsailaren 28an. AIURRI

epaileak hiru urtez funtzio publikoan aritzea debekatu zion komisarioari, eta 100.000 pezetako isuna jarri. Gainera, sententziak adierazten zuen Ballesterosen hiru konfidenteak edo informatzaileak Hendayais tabernako hiltzaileak izan zitezkeela.

1986ko martxoan, ordea, Espainiako Auzitegi Gorenak Ballesteros absolbatu egin zuen, asmo txarrik gabe jokatu zuela esanda. Akusazioak ez zuen etsi, eta 1994ko martxoan lortu zuen Donostiako Auzitegiak berriro epaitu zezan Ballesteros. Prebrikazioaren delituagatik errudun deklaratu zuten, eta sei urtez funtzio publikoan aritzea debekatu zioten. Baina urte bereko abenduan, Espainiako Auzitegi Gorenak berriro ere irauli egin zuen epaia, bigarren aldiz absolbatuz. Abokatu akusatzaileak orduan adierazi zuenez, sententzia honekin inpunitate eta illegaltasun eremuak aitortuta geratzen dira, botere politikoak babesten dituen eta botere judizialak kontrolatu ezin dituenak.

Tabernan zaurituetako Juan Jose Intziarteren eta Miguel Castells abokatuaren testigantzak bildu zituen ETB2ko 360 grados saiokak iazko abenduaren 7an, “*Billy el Niño: la impunidad de los crímenes franquistas*” izenburuko erreportajea.

Estatu aparatuetan goi-ardurak zituen kideren bat epaitegietara eramaten zen lehen aldia izan zen, nahiz inor ez zuten errudun deklaratu. Gerora helduko ziren sozialisten garaiko Rafael Vera, Jose Barrionuevo, Julen Elgorriaga, Julian Sancristobalen eta besteen kasuak.

Hendayais tabernako gertakariak argitzeko estatuko botere politikoak eta judizialak ez zuten ahaleginik egin; kontrara, estali egin zuten. Horrenbestez, gaur da eguna, berrogei urteren buruan, Hendayais tabernako bi hilketen egileak eta horien atzean zeuden egile intelektualak nortzuk diren ofizialki jakin gabe jarraitzen dutela familiarrek eta euskal gizarteak.

Egundaino, biktimarioek eta beren bultzatzaileek (estatuko

funtzionarioek eta arduradun politikoek) ez dute egindakoa aitortu, eta gutxiago joan dira familiarengana barkazio eske.

Estatu-aparatuen inpunitatea

Hendayais tabernako eta Irungo mugako gertakarietan inplikaturako hiru lagunak babestu zituzten Ballesteros eta *Billy el Niño* komisarioen ibilbideetan erreparatzea aski izan daiteke bi errealitatez jabetzeko. Batetik, diktadurako errepresio aparatuek gozatu zuten inpunitate politiko, judiziala eta poliziala 1978az geroztikako demokraziaren eskutik. Eta bestetik, demokraziaren baitan estatu terrorismoa.

Ballesterosek, 70eko hamarkadan, Valentzia, Coruña, Donostia eta Bilboko komisaldegietan komisario gisa jardun zuen, eta horietan torturatu gisa nabarmendu zen. Argentinako epaitegietan frankismoaren krimenak salatuz irekita dagoen kereilan, pertsona ugari haren aurkako testigantza pertsonalak eskaini dituzte azken urtetan. Demokrazian, Suarezen eta Calvo Soteloren (UCD) zein Gonzalezen (PSOE) gobernuekin, giza eskubideen urraketez beteriko curriculumak edukitzez gertatu ez baizik eta, kontrara, goi ardurekin saritu zuten. Hain zuzen, UCDk Borroka Antirrorristako buru izendatu zuen, eta sozialistek, Operazio Berezien Buru eta Segurtasunerako Estatu Idazkaritzaren Informazio Kabineteko buru. Bestalde, Rafael Veraren aholkulari izan zen Algerian, 1988an eta 1989an ETArekin egin zituzten negoziazioetan.

Antonio Gonzalez Pacheco *Billy el Niño*-ri dagokionez ere, ezaguna da frankismoan zehar bereganatu zuen torturatu gisa basatiaren fama. Franco hil ostean, poliziako goi inspektore izendatu zuten.

Biek ere, estatuak emandako pentsio, kondekorazio, domina eta gainerako aitormen ofizial-sinboliko eta ekonomiko- ugari sakelara zituztela hil ziren. 2008an bata eta 2020an bestea.

**BALLESTEROS
KOMISARIOA ETA
"BILLY EL NIÑO"
POLIZIA GERTAEREN
ATZEAN ZEUDEN**



Joxe Mari Monge Castillo. MONJE KAMIO FAMILIA

Monge Kamio Andoaingo familiak injustizia pairatu du modu jarraituan

Frankismoaren krimenen aurka Andoaingo Udalak eta Oroitz elkarrekin epaitegietan jarrita daukaten kereilak, besteak beste, Monge Kamio familiaren testigantza jasotzen du. Euskal Ejertzito Errepublikanoarekin batera kolpe militarren aurka borrokan egin zuen Joxe Mari Monge Castillo gaztearen kasua aipatzen du bereziki familiak, 1937an Santanderren erail baitzuen, eta geroztik desagertuta segitzen baitu.

Kereila berean, familiakoa ere bazen Joxe Kamio Larrañaga aipatzen dute. Uste dutenez, 1978an sortu zen erregimen demokratikoak ez zuen kontuan hartu nazioarteko instantziak giza eskubideen arloan eskatzen dituzten araurik. Alegia, frankismoa sustengatu zuten estatu-aparatuek (politikoa, judiziala, ejertzitoko, gorputz polizialak...) ukitu gabe igaro zirela diktaduratik demokraziara, eta horrek eragin zuela, besteak beste, elementu polizial hiltzaile eta torturatuak jarrai zezaten beren postuetan, eta are gehiago, kargu eta arduretan gora egin zezaten kasu askotan. Manuel Ballesteros eta *Billy El Niño* komisarioen ibilbideek ez dute zalantza askorik uzten interpretazio historiko horri buruz. Gauzak horrela, geure historia garaikidean modu jarraituan injustizia pairatzea zer den ondo dakien familia da Monge Kamio familia.

**BALLESTEROS ETA
"BILLY EL NIÑO"
KONDEKORAZIO ETA
AITORTZA UGARI
JASOTA HIL ZIREN**

**BERROGEI URTE
GEROAGO BI HILKETAK
ETA HAREN
ERANTZULEAK ARGITU
GABE DAUDE**



Joxe Kamioren gorpuzkinak Hernaniko hilerrian daude, egun. AIURRI



Inma Iriondo, Maite Otaño eta Santi Olaziregi produktuen banaketa egunean, Urnietako San Juan plazako Kontzejupean. AIURRI

Baserritik herritarren etxera, zuzenean

Tokian tokiko erosketak sustatzea du helburu "0Km Urnieta" egitasmoak, eta asteek aurrera egin ahala, gero eta herritar gehiagok hartzen dute parte. Baserritik herrikideen etxerainoko zerbitzua da, azkar batean egite dena

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Emakume baserritarren egunean, urriaren 15ean, bildu ziren lehenengo Adarrazpiko, Errekaldoko, Goiburuko eta Gurutzetako baserritarrak. San Juan plazan egin zuten hitzordua, eta patez, barazki poltsez zein esnekiez bete zuten udaletxeko

"HARRERA ONA IZAN DA. GEROZ ETA HERRITAR GEHIAGO ETORTZEN ARI DA"

SANTI OLAZIREGI

arkupea. "0Km Urnieta" du ize-na sortu berri duten proiektuak, eta bitartekaririk gabeko salerosketa da helburua, hain zuzen, Urnietako baserrietako produktuak zuzenean herritarren hozkailura salto egitea.

Konfinamendua du abiapuntu egitasmoak. Izan ere, nork bere

"ESKATZEN DUTEN KANTITATEA MANTENDUZ DOAZ ASTETIK ASTERA"

MAITE OTAÑO

merkatuan egiten du lan eguneroko, Hernanin zein Donostian. Baina itxialdian, mugikortasuna hutsera mugatzean, herri bizilagunetara joateko aukera alboratu behar izan zen. Hala, bezeroekin harremanetan jarri eta etxeko etxeko zerbitzua eskaintzeari ekin zioten. Behin

"EGITASMO HONEN BIDEZ INGURUAN EKOIZTEN DENA EZAGUTZEN DUTE"

INMA IRIONDO

neurri murriztzaileak lausotuta, "0Km Urnieta" proiektua marxtan jartzea erabaki zuten. Horrenbestez, beren eskaintzak Whatsapp talde batean ipintzen dituzte asteburuan, eta asteazkena bitarte dute urnietarrek nahi dutena eskatzeko, ondoren, ostegunean, San Juan plazan egiten den hitzorduan erosita-koak biltzeko.

Santi Olaziregi Errekaldoko baserritarra da: "Harrera ona izan da, jendea animatu da eta geroz eta herritar gehiago ari da etortzen". Bat dator harekin Gurutzeta baserriko Maite Otaño ere; herritarrek interesa dutela ikusi du: "Eskaerak igotzen doaz, eta eskatzen duten kantitatea mantendu egiten da astetik astera; beraz, gustora gaude". Gainera, ostegunetan bertaratzen den jendeak lagunen zein senideen eskariak ere hartzen ditu, alegia, pertsona bakarrak hainbatena jasotzen du. Herriko produktuen salerosketa sustatu ez ezik, Inma Iriondok, Adarrazpi baserrikoak, uste du baliagarria izan dela ere urnietarrek baserritarren berri izan dezaten: "Proiektu horren bidez ezagutzen gaituzte, ezagutzen dituzte beren inguruan zein produktu egiten diren eta hemendik aurrera baikor izan nahi dut, harrera oso ona izan dugu-eta."

Unean unekoa

Barazkiei dagokionean, garaian garaikoa eskaintzen dute; gaur gaurkoz, udako produktuak agurtzen eta negukoak saltzen hasiak dira. Letxua, tomatea, tipulina, porrua eta azenarioa urte guztian jaten diren barazkiak dira, eta neguko jakieki dagokionean, koliflora, brokolia, aza eta azelga daude, besteak beste.

Adarrazpiko baserritarrak artzaiak dira, eta eurentzat negua da urteko sasoirik emankorrena. Urte osoan mamia, gazta freskoa naiz Idiazabalgo gazta dute salgai, baina negua iritsi orduko, esnea, arkumea eta gazta pasteurizatuak ere batzen dira beren eskaintzara.

Urnietarren otarrean

Asteek aurrera egin ahala, gero eta urnietar gehiago dira egitasmoa batzen ari direnak; ostegunetik ostegunera baserritarren produktuak jasotzeko ilara luzatu besterik ez da egin. Lagun baten bidez izan zuen Eli Unzuetak "0Km Urnieta" proiektuaren berri: "Super merkatuan erosi beharrean hona etortzen naiz. Oso pozik nago. Zaporea ezberdina da eta gainera freskoa. Apur bat garestiagoa izan arren, osasuntsuagoak dira". Jose Miguel Ruizek ere ez zuen birritan pentsatu proiektuaren berri izan zuenean, izan ere, betidanik babestu izan du tokiko komertzioa: "Leku batean bizi nahi badugu, leku horretan bertan kontsumitu behar dugu. Zentzurik ez duena da herri batean bizitzea eta irabazitako soldata beste alde batzuetan xahutzea".

Tokiko produktuen gaineko kontzientzia areagotzea ekarri du pandemiak. "Uste dut pentsatzera bultzatu gaituela. Azken finean, etxe inguruan egin dugu bizitza eta agian horrek eraman gaitu erostera eta balioan ipintzera inguruan daukaguna", dio Oihane Peña urnietarrak. Bat dator harekin Unzueta ere: "Gainera, horrela, Urnietako baserritarrei babesa ematen diegu. Urnietak ez dauka baliabide askorik, baina bai, nahiago dut Urnietan kontsumitu beste herri batean baino".



Urnietako
udala

Nieblatarrak protagonista azaroaren 25eko bilkuran

Urnietako udaletxean ordezkaritza duten hori alderdi politikoek Asier Nieblaren senideen eskaerarekin bat egin dute. Euren kasua indarkeria matxistatzat har dadin nahi dute, eta horretarako 1/2004 lege organikoa aldatzeko egitasmoa abiatu dute

Erredakzioa URNIETA

Generoaren indarkeriaren aurkakoa da 01/2004 izeneko lege organikoa, eta hori aldarazten saiatuko dira Urnietatik. Egitasmoa estatu mailakoa izan arren, bada Urnietatik bertatik proposamena abiarazteko pisuzko arrazoiak: Asier Niebla gaztearen kasua. Familiakideentzat indarkeria matxistaren biktima argia da, eta kausa horrekin bat agertu dira orain EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE alderdi politikoak. Legea zabaltzea nahi du Udalak, prentsara bidalitako oharren bidez: "Egungo legeak erasotzailearekin alde aurretik harremana duten edo izan duten emakumeak soilik onartzen ditu biktimatzat, gainerako pertsona guztiak, bai emakumeak zein gizonak, alde batera utziz, Asier Niebla urnietarrarekin gertatzen den bezala". Konpromiso hori ofizial bilakatzekoa zen asteazken honetan, pleno aretoan ira-



Nieblatarrek babes zabala jaso dute herrikideen aldetik. AIURRI

garrita zegoen ekitaldian. Bertara deituta zeuden nieblatarren senideak eta baita ordezkaritza duten hiru alderdi politikoak ere. Proposamenak bidea egin dezan, Urnietan adostutakoa

Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaie. Sinadura ekitaldi horren ostean indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea deituta zegoen San Juan plazan.



Zaborra Adarramendin eta inguruetan

Kirola egiteko eta mendira joateko joera nabarmen handitu zen, konfinamendua amaitzearekin batera. Asteotan joera berri ere handitu da, bereziki mugikortasuna mugatuta dugunetik. Joera hori nabarmena da Leitzarar haranean, Adarramendin edota

Buruntza inguruetan. Astelehenean irakurle batek bidalitako argazkiak jaso genituen erredakzioan. Adarran jendetza ikusi zutela eta biharagunean bidea zaborrez beteta zegoela salatu zuen. Lurretik musukoak, poltsak eta plastikozko botilak jaso zituzten. Tamalgarria.

SAROBKO AURRE-ESTREINALDIAREN KRONIKA

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

Bidegabekeriaren kronika



Gitarra elektriko baten akordeek eman diote hasiera antzezlanari. Oihal gorrien zirrikitu batetik atera dira aktoreak, eta ikus-entzulegoaren aurrean paratu. Euskaldunon Egunkariako langileak dira guztiak, ordezkatik hasi, euskarazuzentzaitetik igaro eta zuzendarira bitarte. Apur bat gehiago ireki da oihal gorria; kartoiz egindako erredakzioa oholtza gainean.

Euskaldunon Egunkariaren azken egunak ditu hizpide "Sisiforen paperak" obrak, baita itxialdiaren osteko uneak ere. Harkaitz Canok, Fernando Bernuesen gidaritzapean, ondo baino hobeto josi ditu erredakzio batean ematen diren solasaldiak, bakarrizketak. Umorea oinarri kontatzen dira erredakzioaren tirabirak, kazetarien arteko eztabaida amaigabeak.

Baina antzezlanaren konpasa daraman gitarrak

sokak tenkatzen dituen egiten dute topo pertsonaiek Guardia Zibilarekin. Eta orduan korapilatzen zaio bati eztarria; mehatxuak, irainak, zaplastekoak eta plastikozko poltsa aurpegian. Arnasestua. Inkomunikazioa, epailearen aurrean egindako aitortzak eta ondorengo jipoiak. Galdera erretorikoz jositako elkarrizketak, galdeketak. Sekretu profesionalari eusten dion kazetaria.

Istorioren baten lerroarteak gorpuztu ditu obrak, bidegabeki itxi zuten erredakzio baten tripetatik kontatua. Oholtzaren alde batean isiltasuna, tentsioa. Bestean, amorrua, aldarrikapena. Erdian gitarra elektrikoak, torturaren eta manifestazio oihuen soinu-banda. Artxiboko irudiek hamazazpi urte atzera salto eginarazten diote ikusleari, hotzikarateraino. 2003ko otsailaren 22an, itxieratik bi egunera, manifestazio jendetsua izan zen Donostian. "Itxia baino ez isildua".

Hamaika aktore eta musikari bat egun gutxian gertatu ziren hamaika istorio kontatzeko. Errealitatearen fikziozko aitortza egiten du obrak, era sotil bezain benetakoan, eta euskal kazetaritzaren gertakaririk lazgarrienetakoaren lekuko bihurtzen du ikuslea. Itxialdi bidegabe baten kronika sakon eta zintzoa da "Sisiforen paperak" antzezlanak.



Erredakzioa ANDOAIN

Kalean da Euskarazko Produktuen Katalogoa, bere 22garren edizioarekin; eta urtero bezala, euskarazko ehunka produktu gomendatuko dizkie, 0-12 urteko haurrei eta 12-16 urteko gazteei. Interneten, 'katalogoa.eus' atarian, are zabalagoa da eskaintza: 10.000 produktu baino gehiago daude ikusgai, etengabe eguneratuta.

22garren edizioa du aurtengoa, Euskarazko Produktuen Katalogoa; eta dagoeneko kalean da paperekoa: 70.000 ale inguru banatuko dituzte, eskola, liburutegietan.

Eta ohi bezala, bere orrialdeetan topatuko dituzte haur eta gazteek, euskarazko ehunka produktu, aisialdirako. Guztiak kalitatezkoak, izan urtetik urtera interesgarri suertatzen direnak, edota urteko nobedadeak: liburuak, ipuinak, jostailu eta jokoak, musika, aldizkariak, komikiak, filmak, aplikazioak, gurasoentzako materiala...

Izan ere, euskarazko produktu interesgarrienak aukeratzen dituzte urtero, katalogoa osatzeko, arlo ezberdinetan aditu diren hainbat lagunek.

Eskaintza hori, baina, askoz ere zabalagoa da interneteko euskarrian, katalogoa.eus atarian. Bertan, euskarazko 10.000 produktu baino gehiago aurkituko dituzte bisitariak, etengabe eguneratutako Katalogoan.

Bi atal ezberdin

Bai papereko edizioak, eta baita internetekoak ere, bi atal ezberdin dituzte, bi adin tarteri eskainitakoak. Haurrentzako osatu dute horietako bat, 0-12 urte bitartekoentzat; eta gazteentzako produktuak jasotzen dituzte besteak, 12-16 urtekoentzat. Webgunean, nahikoa da talde bakoitzari dagokion atalean sartzea, horiei bereziki zuzendutako milaka produktu ikusteko, oso modu errazean. Guztiak daude atalka antolatuta, eta bilatzailea ere badauka webguneak, gainera.

Paperean, berriz, bi alde ditu Katalogoak; eta baita bi portada ere, adin tarte bakoitzeko bat. Horrela, Katalogoa alde batetik hartzen badugu, ikusiko ditugu 0-12 urteko haurrentzako produktuak, eta gurasoentzako materialak; eta buelta emanez gero, 12-16 urteko zuzendutako produktu bilduma izango dugu



Haurrei eta gazteei zuzendutako atal bana, buletinera harpidetzeko gunea eta nobedadeak dauzka, 'katalogoa.eus' guneak. AIURRI

Kalitatezko produktuak Katalogoan

Kalean da Euskarazko Produktuen Katalogoa, eta urtero bezala, euskarazko ehunka produktu gomendatuko dizkie, 0-12 urteko haurrei eta 12-16 urteko gazteei. Interneten, 'katalogoa.eus' atarian, are zabalagoa da eskaintza: 10.000 produktu baino gehiago

esku artean. Horrela, produktuen bilaketa nabarmen erraztu die erabiltzaileei, eta nortasun propioa hartzen du adin tarte bakoitzak. Webgunean bezala, atalka antolatuta daude produktuak, papereko edizioan ere.

8.800 ale Buruntzaldean

Katalogoa osatzeko lanetan, parte hartzen dute Euskal Herriko 120 bat udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan banatzen dute papereko edizioa, urtero. 70.000 ale horietatik, zati handi bat iristen da Buruntzaldeko etxeetara. Izan ere, guztira 8.800 ale banatzen dituzte gure eskualdean, ikastetxeen bitartez bereziki.

Zehazki, Euskarazko Produktuen Katalogoaren 2.300 ale banatzen dira Lasarte-Orian, 2.000 Hernanin, 1.600 Andoainen, 1.100 Astigarragan, beste 1.100 Urnietan, eta 700 Usurbilen.

Produktu berrienak webgunean

Produktu interesgarrien aukeraketa eskainiko du papereko edizioak, datozen asteotarako ezin aproposagoa, urteko garai honetan aukera paregabea izaten baita, euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko. Baina euskarazko produktuak kontsumitzeko urteko edozein egun denez ona, unean uneko nobedade guztiak ere jartzen ditu bisitarien eskura Katalogoak, urteko edozein garai dela ere, interneteko

edizioan. Izan ere, maiztasunez eguneratzen da sareko Katalogoa, argitaletxeek eurek elikatzen baitute: urtean zehar kaleratzen dituzten produktuak, labetik atera berritan gehitzen dituzte Katalogoan; eta deskatalogatu direnak, berriz, kendu egiten dituzte. Hori horrela, etengabe ari da hazten katalogoa.eus.

Gainera, produktu gehiago bildu ez ezik, produktuei buruzko xehetasun gehiago ere jasotzen ditu Katalogoak, interneteko edizioan. Egileei eta argitaletxeari buruzko informazioa aurkitu daiteke bertan, produktuari buruzko azalpena ere bai, noiz argitaratu duten, edota zein adin tarteri zuzendutakoa den, besteak beste. Eta erosketak egiteko ere, lana errazten du: pro-

duktu hori non eskuratu dezakegun emango digu aditzera, eta baita prezioa ere.

Produktuen aniztasuna eta Katalogoak eskaintzen duen aukera ezin zabalagoa da. Haurren atalean, esaterako, 3.300 liburu eta ipuin baino gehiago aurkitu ditzakegu, 250 jostailu eta joko inguru, 140 disko, 120 pelikula, 80 komiki, 100 informatika produktu eta aplikazio, 60 aldizkari, gurasoentzako 45 produktu, 370 ikasmaterial, eta 120 liburu elektronikoa.

Gazteentzat ere, oso zabala da Euskarazko Produktuen Katalogoaren aukera: 1.550 liburu daude, 30 jostailu eta joko, 1.290 disko, 96 komiki, 71 pelikula, 30 produktu informatiko eta aplikazio, 60 aldizkari, 156 ikasmaterial, eta 210 liburu elektronikoa.

Haurren atalean zein gazteen atalean, produktuak ordenatu daitezke atal bakoitzean, izenburuaren, egilearen, argitaletxearen eta argitaratzen urtearen arabera. Eta bilatzailearen bitartez ere, modu errazean aurkitu daitezke produktuak.

Euskarazko Produktuen Katalogoa esku artean izan ez duenak, gainera, interneten bertan deskargatu dezake, PDF formatuan, adituek egindako aukeraketa ikusteko.

Buletinera harpidetzeko aukera

Webgunean bertan, nobedadei eskainitako atala ere badauka Katalogoak, gehitu diren azkeneko produktuak aditzera ematen dituena. Baina horrez gain, nobedadeen berri emateko beste zerbitzu bat ere eskaintzen du Katalogoak: buletinera harpidetza. Doakoa da, eta katalogoa.eus webgunean bertan dago txoko bat, harpidetza egiteko. Horretarako, nahikoa da izena eta helbide elektronikoa ematea; eta hortik aurrera, hileroko jasoko dugu buletina gure posta elektronikoa, hilabeteko nobedadeetako batzuen berri emanez.

Webgunea eta buletina ez ezik, beste bide bat ere badauka Euskarazko Produktuen Katalogoak, nobedadeen berri eman eta produktuak gomendatzeko: Facebooken daukate orrialdea, Euskarazko Produktuen Katalogoa izena duena; eta bertan argitaratzen dute, Katalogoarekin lotutako edozein albiste. Gai edo egun jakin batzuekin lotura duten produktuak ere ematen dituzte aditzera, unean-unean.

Irakurzaleak diren haurrak

Oso tresna erabilgarria da Euskarazko Produktuen Katalogoa, liburutegietan ere, eta aurtengoa ere, badaukate dagoeneko. Liburutegiko eskaintza eguneratzeko garaian, Katalogora jotzen dute liburuzainek; eta zer irakurri ez dakiten haur eta gazteei, Katalogoa ematen diete, «gomendio edo pista modura». Hala azaldu dute, Hernaniko Udal Liburutegiko arduradunek.

Haurretan, adinaren arabera da, zer irakurri aukeratzeko: «5-6 urte arte, gurasoak saiatsen dira haurrei zaletasuna sortzen. Baina 7 urtetik aurrera, haurrek beraiek aukeratu nahi izaten dute, zer irakurri. Bildumak eskatzen dituzte askok, eta abentura edo umorezkoak badira, hobe». Nerabeek, berriz, irakurzale badira, ez diete «askorik galdetzen» liburuzainei: «nahiago izaten dute beraien kaxa ibili, apalen artean». Aldiz, irakurtzeko hainbesteko ohitura ez dutenak, «gurasoekin etortzen dira, edo

gurasoak beraiek datoz seme-alabentzako liburu bila. Eta horiek bai, laguntza eskatzen digute. Komikiak erakusten dizkiegu, eta baita nerabearoko eguneroko gaiak jorratzen dituzten liburuak ere».

Haurrak izaten dira, euskaraz gehien irakurtzen dutenak; gazteek, gaztelaniaz gehiago. «Haur literaturan, eskaintza ederra da, zabala. Askotariko gaiak dituzte. Gainera, euskaraz irakurtzera daude ohituta, eta normalean, ez dute gaztelaniaz nahi izaten. Gazteentzat, aukera ez da hain zabala, eta euskaraz dauzkatenak, gainera, ikastetxean eskatzen diete irakurtzeko. Horietatik kanpo, aukera dezente gehiago dute gaztelaniaz».

Arrakasta gehien duten liburuak ere eman dituzte aditzera, liburuzainek. «Bildumak dira irakurrienak: Futboleroak, Txano eta Oscar, Geronimo Stilton, Rita, Junie Jones, Eta zer?, Onin... Gazteen artean, berriz, Blue Jeans, You...». Oso



Hernaniko Udal Liburutegiko arduradunak, haur eta gazteentzako liburuekin. AIURRI

irakurzale ez direnei, komikiak gomendatzen dizkiete beraiek: «Superpatata, adibidez, arrakasta handia ari da izaten». Asko mailegatzen diren bildumak ere erakusten dizkiete, «batzuentzat ez direlako hain ezagunak». Liburu mota bat edo beste, irakurzaleek

gustuko dute liburutegira joan, apal artean ibili, eta beraien aukeraketa egitea. «Hori ez da askorik aldatu». Eta ezta euskarria ere: «ez dugu uste, asko direnik liburu elektronikoa aukeratzen duten gazteak. Irakurtzekotan, nahiago dute paperean irakurri», nabarmendu dute.

0-16 urte
Katalogoa
EUSKARAZKO
PRODUKTUEN
KATALOGOA 2020-2021

OPARITU EUSKARAZ
WWW.KATALOGOA.EUS

EUSKARAZKO PRODUKTUEN
KATALOGOA

Chiscano Ondarretako irakasle ohiaren heriotza

Andoainen hamabi urteko ibilaldia egin zuen, Ondarreta ikastetxean. Villanueva la Serena (Badajoz) herrian jaio eta bertan bizi zela hil zen azaroaren 13an, 81 urte zituela. Alargunduta zegoen, eta lau seme-alabaren aita zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Arrasto sakona utzi zuen hainbat pertsona eta erakundeetan: Andoaingo Ondarreta ikastetxe-ko komunitatean, Etxeberrieta auzoan, Hogar Extremeño elkartearen... Eskuzabaltasuna eta umiltasuna jakinduriarekin bikain uztartzen jakin izan zuen pertsona modura definitu dute Andoainen ezagutu zuten hainbatek.

Tomas Chiscano eta bere emazte Maria Espejo 1968an heldu ziren Andoainera, bertan zegoen eskola publikoan lan egitera. Bi urte Etxeberrietako futbol zelaia-aren ondoan zegoen eraikinean irakasle izan ziren; bizi ere, aldameneko eraikinean bizi izan ziren, irakasleentzako prestatuta zeuden etxebizitzatoko batean. Etxeberrietan berehala integratu ziren, eta Chiscanoren kasuan, Euskalduna futbol taldeko laguntzailea izan zen. Orduan adiskidetu zen Javier Zatarain, Nikolas Urrutia, Joxe Galparsoro eta Baleojoan sozietatea osatzen zuten beste zenbait kiderekin. Harrezkero, eta orain gutxi arte, Aste Santua iristen zen aldiro Chiscanok Andoainera etortzeko ohitura zuen. Adiskideekin bazkari legea egiteko ohitura zuen.

1970ean Ondarreta ikastetxea eraiki zenean, Chiscano bertan aritu zen. Literaturako irakaslea izan zen. Andoainen ia hamabi urteko bizialdia egin ostean, bikotea berriro ere Badajozera itzuli zen.

Andoainen ez ezik, Chiscano Badajozeko beste hainbat herrietan aritu zen irakaskuntzan: Don Benito, Villanueva, Entrerrios eta Santa Amalia. 2010ean hartu zuen erretiroa Don Benitoko ikastetxe publikoan.

Hogar Extremeño elkarte-ko bultzatzaileetako izan zen

1977ko hondarrean Extremaduratik Andoainera bizitzera eto-



2007ko argazkian Chiscano hizketan ageri da, Hogar Extremeño elkartearen eratzeko orduan behar izan zituzten agerietako bat eskuetan duela. Argazki gehiago aurki daitezke Aiurri.eus gunean, Chiscanori eskainitako tarte zabalagoan. HOGAREXTREMEÑO

rritako emigranteek El Miajon de los Castuos-Hogar Extremeño izeneko kultur elkartearen zabaldu zuten, bere-bereak ziren kultura, gastronomia, ohiturak... gogoan hartu eta zabaltzeko asmoz. Tomas Chiscano izan zen bultzatzaile nagusietakoa.

Urteak igaro baziren ere, Chiscanok Andoain bihotzean zera-

man. Nahiz eta ehunka kilometrorra bizi, eta urtean behin egiten ziren bixita adiskideei.

Omenaldia

2007ko ekainaren 2an Andoaingo Hogar Extremeño elkarteak Chiscanori omenaldia eskaini zion, elkartearen sortu zeneko 30 urterena betetzen zela probestuz.



Ondarreta ikastetxean sustatu zuen literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldian. ONDARRETA

Bolada hartan elkarteko presidentea zen Paco Rodriguezek gogoratzen duenez, "Egun handia izan zen hura berarentzat, eta halaxe aitortu zuen hitza hartu zuenean. Emozioz gainezka egon zen egun osoan. Izan ere, elkarteko kideak ez ezik, udaleko ordezkariak, Ondarreta ikasle izandako eta herritar ugari bertaratu zen ekitaldira; denek nahi izan zuten hura besarkatu, musu bat eman, eskertza adierazi...".

Idazle oparoa

Lanbidez irakaslea zen, literaturako irakaslea hain zuzen, eta idaztearen gogoko. Bere kasuan lanbideak eta zaletasunak bat egin zutelako esan daiteke. Ondarreta ikastetxean 70eko hamarkadan, gazteengan idazteko eta margotzeko gogoak pizteko asmoz eratu zen lehiaketako bultzatzaile nagusia izan zen.

Bost liburu idatzi zituen, poema gehienak: tartean, *Todavía; Borbotones de ensueño; Ilusiones y Sentimientos; La ruptura del tiempo; Le habían dicho que...; eta, Poemas para leer en la escuela*. Liburu askotan, irakaskuntzan pilatutako eskarmentua eta ikasle gazteekiko maitasuna islatu zituen.

Bere azken liburua, *Sensaciones Vitales* izan zen: 2019an iaz argitaratu zuen, eta emaztea hil ondorengo bizipenak bildu zituen bertan.

Hiztegi berezi bat ere argitaratu zuen, *Vocabulario Serón*, lexikografian bilketa lan aparta egin ostean. Villanueva bere jaioterrian zein La Serena bailara osoan oraindik ere bizirik ziren hitzak, esaerak, esamoldeak... bildu zituen; desagertzeko zoriar den hizkuntza ondarea berreskuratu eta ondorengo belaunaldi gazteen esku uztea izan zen bere asmoa.

Gizona ez zen egonean egoteko jaio, eta ekimen ugariak izan zen. Extremadurako Idazleen elkartearen kide ez ezik kulturarekin zerikusia zuten zirkulu eta tertulia askotan parte hartzen zuen, eta zenbait literatura lehiaketa irabazi zituen. Villanueva de la Serena bere herrian Porticuvus kultur taldeko ekintzaile gisa jardun zuen azken egunera arte. Prentsa-artikulugile emankorra zen; besteak beste, *Hoy* egunkariko herri kronikalaria, eta Vegas Altas La Serena astekariko artikulugilea zen.

Etxeetako langileen egoera aztergai

Berdintasun Sailak antolatu duen solasaldia on line eskainiko dute, ostiral honetan

Erredakzioa ANDOAIN

Isabel Otxoa EHUko irakaslearekin batera, Maitelan eta Emagin elkarteetako kideek parte hartuko dute iluntzeko 19:00tan hasiko den mahainguruan.

Berriki, Emaginek Beterri-Buruntza eskualdeko diagnostikoa egin du. Egindako ikerketa lan horren aurrerapena egin zuten Hernaniko Kronikan. Zaintza lanak demokratizatzearen prozesuan, lagungarri izan nahi duen analisia egin zutelako adierazi zuten. "eraldaketa pizgarria izan nahi duen lana da; berregituratze baterako oinarritzeko tresna; eztabaida soziala sustatzeko erreminta", adierazi zuten Miren Aranguren Emaginek kideak.

Eskualdean zaintza lanak nola antolatzen diren aztertuko zuten. Horrez gain, proposamena ere garatu zuten. Lehendik zetorren gatazka azalerazi da, azterlan horretan: "Emakumeon eskubideen defentsak, zaintzen krisia eta mendeetako injustizia azalarazi egin ditu. Herritarren zaintzarako beharren eta zaintzeko baliabideen artean desoreka handia dago, eta horren kaltea emakumeak ordaintzen du. Egungo zaintzen antolaketak, beraz, ez ditu herritar guztien eskubideak errespetatzen".

Bi foko nagusi ezarri ziren. Lehenik, zaintza langileak. "Bai familia zaintzen dutenak, bai eta zaintza profesionalean jarduten dutenak, erresidentzietan, etxeetan, eguneko zentroetan, edo etxeetako langile gisa". Eta bigarren fokoak, helduen zaintzara dedikatzen direnak. "Errealitate gordina da, zailtasunez beterikoa. Gatazka asko metatzen diren eremu bat da eta urgentziaz atentitu beharrezkoa, gainera".

Solasaldirako sarbidea:



Margolanak aurkezteko ekitaldian antolatu zuen Andoaingo Udalak, astearte eguerdian. AIURRI

Rikardo Arregi eta Manuel Lekuona, Truchuelok margotuta

Andoaingo Udaletxeko pleno aretoan bi seme kuttunen olio margoak ipini dituzte. Emilio Truchuelo izan da egilea

Xabier Lasa ANDOAIN

Emilio Truchuelo argazkilaria eta margolariak herriko bi seme kuttunekin egindako bi olio-margo jarri zituzten astearte eguerdian, udaletxearen pleno aretoan. Rikardo Arregi eta Manuel Lekuonaren bi irudiak jartzeko ekitaldian egilea bertan izan zen. Andoaingo Udalak egileari eskerrak emateko baliatu zuten asterateko ekitaldia. Andoaingo Udalak 1988an He-

rriko Seme Kuttun izendatu zituen Rikardo Arregi eta Manuel Lekuona idazle euskaltzaleen irudiak dira jarri dituztenak. Udal araudiari jarraiki, seme edo alaba kuttun eta ohorezko izendatutako pertsonen irudiak -olio margoak- batzarraldi-aretoan agerian egotea dagokie.

Ekitaldian, Txitxu Ruiz Kultura zinegotziak gogoratu duenez, Arregi eta Lekuona 1988an Herriko Seme izendatu zituztenez

behin-behineko argazkiak jarri ziren haiek omentzeko; orain urte batzuk, baina, aretoan izandako itogin baten eraginez guztiz hondatu egin ziren. Era berean Manuel Larramendi eta Agustin Leizaren irudiak ere kaltetuak izan ziren. Orain, Udalak berrizatu egin ditu eta eginkizun hori Garazi Valverde zaharberritze-teknikariaren esku utzi ditu.

Truchueloren eskertza

Artista autodidakta apal baten zat bere margolanak udalbatzar aretoan zintzilika egotea ohorezkoa dela aitortu zuen segidan, eta ondoren, ekitaldira bertaratutakoei gogorarazi zien bera ere udal zinegotzia izan zela. Kronika osoa, webgunean.



AIURRI

'Izan bidea' ekimena herriz herri

Euskal presoak Euskal Herriratzeko ekimen betean dabil Sare taldea. Joan zen larunbatean elkarretaratzeak deitu zituen, herriz herri. Urtarrilaren 9an Bilbon nazio mailako manifestazioa antolatzen da, eta aurtengo egoera ikusita, manifestazioa herriz herri egiteko deia luzatu dute.



AIURRI

Sahara herriarekin elkartasuna

Marokoko ejerzitoak Guergueraten izandako jarduerak gerra giroa piztu du Saharako kanpalekuetan. Mundu mailan hainbat ekimen batu dira Saharako herritarrei elkartasuna adierazteko. Andoainen, Hurria-Sahara elkarrekin dozenaka herrikide elkartu zituen Goikoplazan. Larunbat eguerdian egindako ekitaldian, Saharako jatorria zuten herrikideak hurbildu ziren. Anodainen ordezkariak zuten lau alderdiek adierazpen instituzionala adostu dute. Hurria-Sahara elkarrekin Nazio Batuei segurtasuna bemratzeko eskaera egin dio, eta Espainiako Gobernuari erantzukizuna baduela gogorarazi dio.



AIURRI



Miren Barrena, Damaris Pan, Leire Lacunza eta Ibon Landa Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan. L. MUÑOZ

Akzidenteak gobernatzearen artea

Paladin erakusketa zabaldu dute Andoaingo Bastero kulturgunean, arte garaikideari espazio berriak irekitzeko pentsatutako Harriak programaren barruan. Miren Barrena, Leire Lacunza eta Ibon Landaren lanak bildu dituzte

Irigo Astiz ANDOAIN

"Bat-batean pieza berriak nituen". Deskubrimendu bat egin duenaren poz gardenarekin gogoratu ditu Miren Barrena artistak (Donostia, 1996) Andoaingo Bastero Kulturgunean ikusgai jarri duten Paladin erakusketa kolektiboaren muntatze lanak. Leire Lacunza Miranda (Donostia, 1996) eta Ibon Landa Amutxategi (Gasteiz, 1994) dira erakusketa osatzen duten beste bi sortzaileak, eta Damaris Pan artista eta EHUKo Arte Graduan eta Pintura Masterrereko irakaslea aritu da birtartekari lanetan. Haizea ez dute alde izan, ordea. Osasun eta segurtasun neurri aldaketa etengabeen ondorioz, hilabeteak

eman dituzte erakusketa egite-ira iritsiko ote ziren jakin gabe, eta zalantzaraz betetako denbora horren ostean, azkenean, Euskal Herria geldiarazita daukan pandemiaren erdian egin ahal izan dute irekiera. Horregatik, bereziki biziak dira Barrenak aretoa antolatzen emandako bi egunei buruzko azalpenak, kontraste nabarmena egiten dutelako areto kanpoan nagusitutako gelditasunarekin. "Denbora guztian egon gara elkarrekin lanean, eta bata bestearen espazioan eta bata bestearen erabaketan ere sartu gara". Elkarriketa eta elkarlan prozesu horri esker, aretoan bertan agertu dira orain aretoan ikusgai dauden lanetako batzuk, eta

elkarlan horregatik doaz nahasian ere batzuen zein besteen margolanak, eskulturak, instalazioak zein bideoak, artista bakoitzak bere ahots propioa mantendu arren. Osotasunaren eta hura osatzen duten atalen arteko elkarriketa hori da bildumaren ezaugarrietako bat. Irudi luke bere formaren bila dabilela erakusketa bisitariaren begien aurrean. Mugitzen. Bizirik. Haren inguruan denak geldi dirudien unean. Abenduaren 5era arte egongo da zabalik.

Airea izan dute erakusketako langaietako bat. Aurrez ere eza gutzen zituen hiru artistak eta euren lanak Damaris Pan bitartekariak, eta hiru sortzaileen artearekiko motibazioa nabar-

mentu zuen aurkezpen ekitaldian. Horregatik titulua: Paladin. Egindako balentriengatik bereizten den zaldun indartsu eta ausartei erreferentzia eginez, alegia, edo zerbaiten edo norbaiten defendatzaile sutsuak ere badirela adierazteko, bestela. Agian, kasualitatez, baina hiru silabatan ebakitzeko hitza ere badena, pa-la-din, eta, gainera, kolpe bakoitzarekin hizlariaren mihiaren posizioa pixkanaka barrutik kanporantz daramana. Hiru kolpeko batasun bat. Eta, horregatik, piezekin batera, pieza guztien arteko airea ere zaindu beharrarena.

LEIRE LACUNZA MIRANDA

Bidegurutze batean ikusten du bere burua Leire Lacunza Miranda artistak. Eskuaren eta saguaren artean. Pintzela eta teklata. Oihala eta pantaila. Baina edonola ere, beti da "eta", eta sekula ere ez "edo". Eta puntu hori erakusten dute Paladin erakusketan bildu dituen lanek.

Euskal Herriko Unibertsitatean egin du Arte gradua, eta bertan dabil orain Pintura Masterra egiten. Donostiako Tabakalera-ko Artistentzako Lantegian ere hartu zuen parte 2018an eta hurrengo urtean Pekinen egon zen 2019ko udan egonaldi programa batean. Azken urte betean egindakoak dira erakusketan jarritako lan gehien-gehienak, eta agerikoa da mundu digitalaren eta mundu analogikoaren arteko tentsioa guztietan. Baina bidegurutze gehiagoren atarikoak baino ez da lehen bidegurutze hori ere. "Dena zorutzen hasi da pixka bat", onartu du.

"Azken urtea intentsua izan da. Pekinen olioan pintatzen eta digitalki lan egiten aritu nituzten. Photoshoparekin aritzen naiz askotan, eta asko gustatzen zaikit hor dauden prozedurak, nahiz eta horiek paperera eramateak ez duen beti buruan dudan emaitza sortzen. Gatazka hori neukan eta pentsatu nuen bestelako prozedura batzuetatik gerturatzea Photoshoparen prozedura horietara". Adibide bat jarri du: "Gustuko nituen figurak kalka-

DAMARIS PAN ARTISTA ETA EHUKO IRAKASLEA ARITU DA BITARTEKARI LANETAN

tzen hasi nintzen. Maite nuen irudi baten zati bat hautatu, eta haren zuriak bakarrik kalkatzen nituen".

Hala sortutako hainbat kalko ikusiko ditu bisitariak Andoaingen.

"Nire lan egiteko modua oso obsesiboa da. Jartzen naiz aste-bete zerbaitekin eta jartzen naiz topera. Zerbait moztan hasi, eta moztu, moztu, moztu; edo kalkatu, eta kalkatu, kalkatu, kalkatu. Eta lantokia betetzen hasten da. Gauzen zatiak nituen alde guztietan, eta horrela hasi ziren puska batzuk mahai gainean pilatzen, agian hori zelako estudioko puntu garbi bakarra, eta, beraz, puntu garbi horretan uzten nituelako gustuko gauzak. Hor hasi ziren zati batzuk besteen gainean pilatzen, eta bat-batean ikusi egin nuen: uau!".

Eta erakusketa areto erdialdeko horman ikusi daiteke orain, zehazki, Lacunzak aipatutako "uau" hori. Hainbat geruzaz osatutako artefaktu bat. Elkarren gainean gainjarritako margotutako hainbat gardenkirekin. Kalkoekin. Silueteekin. Olioekin. Zintziliek. Geldi.

Geldiegi akaso?

"Asko gustatu zitzaidan erakusketarako pieza hori berriz zabaltzea. Desmuntatu egin zen. Sortzen den irudia gustatzen zait, baina gustatzen zait ireki ahal izate hori ere, eta toki batetik bestera mugitzean sortzen den aldaketa".

Horra bigarren bidegurutze bat: gelditasunaren eta mugimenduaren artekoa. Eta bada hirugarren bat ere: bolumenarena.

Horma berean, justu artelan horren ondoan, bada geruza are gehiagoraz osatutako beste artelan bat. Aurrekoa baino esplizituagoa. Kasu honetan, paretatik ateratzen diren torloju luze batzuetatik zintziliek daude artefaktuaren geruza guztiak, pintza moduko batzuetatik helduta; edonork kendu edo berrantolatzeako moduan. "Kasu horretan ere collage asko nituen estudioan, eta ez nekien non utzi. Nire nahi edo beharren arabera uzten nituen toki batean edo bestean, eta zintziliek ere bestela. Hasi zen bat-batean gorputz bat hartzen, faltan botatzen nuena nire lanetan".

Eskulturarantz?

"Krisian nago. Bueno, krisian ez, baina ez dakit oso ondo. Nik beti esan dut margolaria naizela. Margoa landu dut gehienbat, eta pinturara gerturatzeko moduak dira hauek ere. Orain beste gorputz bat hartzen ari da lana, eta planteatzen dut agian gorputz gehiago hartu behar duela, baina nik uste dut nire kezka, batez ere, pinturatik datozela. Ikusiko dugu nora doan".

IBON LANDA AMUTXATEGI

Bastero Kulturguneko aretoaz mintzo da lehen-lehenik Ibon Landa Amutxategi. "Alde batek, baditu museo batetik hurbil dauden hormak, baina, bat-batean, baduzu baita ere inklinatutako beste horma bat ere. Bi muturrak dituzu eskura: bata jolasteko, eta bestea zure harrotasun guztia erakutsi ahal izateko, pareta txuri horien gainean". Eta, hain zuzen, aretoarekin elkarrizketan antolatuta dute berak erakusketako piezak.

Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen berak ere Arte Gradua, eta 2017an Itziar Okariz eta Jon Mikel Eubarekin aritu zen Tabakalerako Artisten Lantegian. EHUko Pintura Masterra ere hasi zuen iaz, eta bertan sortutakoak dira erakusketan ikus daitezkeen txinatar tintaz edo kola beltzez estalitako aldizkari orriekin osatutako piezak. Dioenez, berotze ariketa modura hasi zuen serie hori estudioan. "Tonua hartzeko". Aldizkari orriak hartu, tinta beltz klaseren batekin estali, eta gero harekin jolastu. Erauziz. Kenduz. Arramazkatuz.

Artelan propio bilakatu dira, ordea.

"Aldizkarian bertan hasi nintzen orriak pintatzen, baina formatu horretan pertsona bakarrak ikus dezake lana, eta askatu egin nituen, gero, lekuaren arabera modu batera edo bestera antolatzeke. Gorde nituen orriak, eta disposizioa azken momentuan erabakiko nuela pentsatu nuen". Eta horixe egin du Andoainen. Diagonalean ezarri baititu paper sorta pare bat, hain zuzen ere, aretoaren hormaren inklinazioa ispiilatuz.

Belztasunari ihes egiteko irrikatik sortu dira beste lanak.

Ez zuen nahi bisitariak erabat beltz imajina zezan. "Konplexua sartu zitzaidan". Beste hainbat pieza eraman ditu horregatik Basterora, eta familiarekin lotuta daude guztiak. Kasualitatez. Areto erdialdean zoruan zabalduak izara gorri bat da haietako bat, ikurrinaren formen oihartzunekin; eta sarrerako horman iltzatutako 15 egurrezko piezatxoko sorta bat da beste bat. Txori itxurakoak.

Txoriak dira?

"Deitu nahi bezala. Gustatzen zait txoriena, polita da". Halere, "egurtxoak" edo "egurrak" deitu ditu berak. Eta hautaketa soil horrekin, esan gabe esan du nahiago duela irudia erabat itxi gabe utzi.

"Taillatzen aritzen nintzen lehen, nire aitonaarenak izandako erremintak erabiliz. Fakultatera pare bat gubia eramaten nituen. Gero, iaz hartu nituen berriz tresnak, eta gelditzen nintzen txotxolotuta egindako tailla haiekin ateratzen ziren egur puskekin. Egiten nentzen egurrezko figuraren negatiboak bezalakoak ziren. Zakarrontzira bota beharrean, bazter batean pilatzen nituen, tontortxo bat osatu nuen arte". Eta Leire Lacunzaren bidez asmatu zuen haiekin zer egin.

Unibertsitatean pintura masterraren elkarren ondoan egiten zuten lan bi sortzaileek, eta lagunari ikusitako keinu bat errepikatu zuen Landak pusketa haiekin. "Zutik jarrita, kola pote oso bat hustu zuen bere lanen gainean Leirek, eta keinu hori imitatu nuen. Bota nuen kola zuria tontorrera, eta, gero, hasi nintzen egur meta hura desmuntatzen, eta pieza batzuk itsatsita topatu nituen".

Akzidente horren ostean, kontzientzia handiagoz hasi zen zatiak elkarrekin lotzen. Eraman zituen Andoainera gero kutxa batean, eta bertan zela bururatu zitzaion aretoko sarrerako altzairuzko horman iltzatzea.

Eta ikurrina?

"Ez dakit ikurrina bat den...". Nahiago hori ere zabalik utzi.

Dioenez, 2016an, amona hil eta berehala hasi zen haren izarak pintatzen, eta orduan hasitakoa da orain Andoainen ikusgai

jarri duen lanetako bat. Baina luzea izan da azken itxurara heldu arterainoko bidea.

Margotu eta urtebetera jarri zizkion oihal mozketak batzuk gorriz tindatutako izara hari, eta lerro horizontala falta lukeen ikurrina moduko bat agertu zitzaion aurrean. Erabat konbenzitu gabe tolestu eta gorde zuen pieza, ordea, eta bi urte eman zituen lanak estudioan. 2019an zabaldu zuen berriz, Pintura Masterreko eskolan, izarekin egiten zebilen lana erakusteko. Ireki zuen pieza berriz ere, baina izara bakarrak zabaldu zen guztiz, eta erditik tolestuta gelditu ziren gaineko oihalak. "Akordatzen naiz ze klik egin zidan horrek, zeren eta hor bukatu zen pieza".

Akzidenteak?

"Noski, ez da nik nahita egin-dako keinu bat, baina ikusi eta nire zerbait errekonozitu nuen".

MIREN BARRENA

Hasi, Miren Barrenaren zuri-beltzezko mural handi batekin hasten da erakusketako ibilbidea. Eskailera jaitsi eta ezkerreko horman topatuko du hamaika orri puskaz osatutako pieza ikusleak. Hasiera batean, fotokopiagailu batek egindakoak diruditen forma geometriko abstraktuak bakarrak ikusiko ditu bisitariak, baina piezaren tituluak emango dio artelanaren karga ironikoa ulertzeko pista: Usoaren apunteak.

Praktika artistikoaren aldarrikapen bat da lana, funtsean.

Ezpainetan barre txikiarekin eman du azalpena artistak. "Euskal Herriko Unibertsitatean arte ikerkuntzarako master bat egiten ari naiz, eta eskoletan irakasle batek emandako apunteen ertzean osatu dut pieza irakasleak egindako liburuen fotokopien ertzeke beltzuneekin, zehazki-. Apunte pila bat ematen dizkigute, eta oso-oso teorikoa da masterra. Nik harrিতa begiratzen nuen fotokopien bazter horretan galtzen zen tinta guztia, eta harrিতa egoten nintzen hor ikusten ziren ña-

HIRU ARTISTEK AIREA IZAN DUTE ERAKUSKETAKO LANGAIETAKO BAT

bardura eta beltz tonu guztiei begira. Tinta hori erabili behar nuela erabaki nuen. Moztu nituen ertz horiek, konposizio bat osatu nuen soberakin horiekin, atera nien foto bat, eta hori da artelana. Niretzat keinu moduko bat izan zen, esateko, nik, azkenean, praktika gehiago baloratzen dudala".

Halako keinuak batzen ditu Paladin erakusketako hiru sortzaileen lanak, Barrenaren hitzetan. Ertzen erabilera horrek. Soberakinaren eta lehengaiaren arteko joan-etorri horrek. Stripu eta trebezia nahaski horrek. Eta Damaris Pan bitartekariak erakusketak aurkezteko idatzitako testuko esaldi bat dakar gogora hori ilustratzeko. "Edozer pasa daiteke euskarri izatetik eutsia izatera, eta alderantziz".

Barrenarena da hiru artisten arteko lanik korporalena.

Hasierako mural horrekin batera, bideo bat ere jarri du erakusketan, baina aretoan jarritako eskulturrek hartzen dute pisurik handiena. Etengabeak dira gorputz atalei egindako erreferentziak haietan: badira giza gerriak, banda moduko batekin lotutako hormigoizko lau oin, aldizkariekin sortutako bularralde baten moldeak... Arte ikasketak egin zituen berak ere Euskal Herriko Unibertsitatean, masterra egiten ari da orain, eta laguntzaile ere badabil June Crespo artistaren tailerrean. Zirku ikasketak ere baditu, gainera, eta, kontortsionismo ariketa batzuk egiten ere ikus dezake bisitariak erakusketako bideoan. Eta lotuta bizi du dena berak. "Niretzat eskultura da ia-ia kirol bat bezalako".

"Erakusketako pieza gehienak etxeko trastelekuan sortu ditut. Konfinamendu garaian hori erabili nuen tailer modura. Oso txikia da, eta eskailera pilo bat igo behar dira hara joateko. Konfinamendu garaitik hona sortu ditut erakusketako eskulturarik gehienak, toki berean denak, eta pila bat nekatzen nintzen, ur bila edo beste edozeren bila joan-etorrian ibili behar nuelako aldiro, eskaileretan gora eta behera. Pinturan askoz motelagoa da prozesua. Eskulturan ere burua beti hor dago, baina beste zentzumenak ere askoz ere esnago ditudala sentitzen dut. Gauzak okertu, mugitu, tolestu.. Erabil-

tzen ditut eskuak, hankak, belauak... Gorputz guztia erabiltzen dut. Kontzientzia korporal handia behar dut".

Eta kirolarena?

"Pintura mentalki oso gogorra egiten zait. Eskulturan ere badaude momentu zailak, baina oso ondo pasatu dit. Igual, niretzako delako beste kirol bat. Zirkuan gertatzen den bezala, kirola ez delako zerbait bakarrik fisikoa, badauka ere zerbait sortzailea".

Trastelekuan topatutako materiala baliatu du erakusketako bideoarako ere. Aitaren diapositiba bilduma bat, zehazki. Konfinamendu garaian grabatu zuen bideoa haiekin. Eta erraz identifikatu daiteke etxe arrunt bateko pasilo arrunt baten izkina arrunta irudietan.

Familiako oroitzapenak proiektatzen dituzte diapositibek horman, eta Barrena ikus dezake bisitariak irudi horien aurrean. Haiekin elkarrizketan. Herriko festetakoak dirudien dantzaldi baten irudiekin bat egiten du artistaren gorputzak une batean, kontortsionismo ariketak egiten ditu paisaia baten irudiekin nahasita, korrikaldi baten itxurak egiten ditu lasterketa baten irudiekin... "Trastelekutik sortu direlako daude erakusketako pieza guztiak lotuta, nik uste. Familia, kirola, gorputza... Serie bat balira bezala ikusten ditut orain erakusketan dauden lan hauek guztiak. Denak familia bereko kideak balira bezala".

Hiru artisten lanen bereizgarriez gainera, haien arteko loturak ere aipatu zituen Damaris Pan bitartekariak aurkezpenean, eta erakusketako lan gehien izaera "desmuntagarri" eta "birmuntagarria" aipatu zuen. Eta ezaugarri hori da abenduaren lehenean egingo duten bideo proiektzioaren ezaugarria ere. Bideo baten zatiak hartu, desmuntatu, eta birmuntatzeko proposamena egin diete erakusketaren antolatzaileek Andoaingo ESCIVI zine eta bideo eskolako kideei, eta haien lanekin osatuko dute abenduaren leheneko proiektzioa. 11:00etatik 13:00etara izango da zita. Zinema Paladin deitu diote saioari. Kasu honetan, erakusketak proposatutako batuketa moduko hori, biderketa bilakatuz, hiru eta hirurekin, zi-ne-ma, pa-la-din.



Jon Gaztañaga andoaindarra, klub berrian. AIURRI

"Ligaren bila ari den taldean jokatzera erronka handia da"

JON GAZTAÑAGA FC VIITORUL CONSTANȚA TALDEKO JOKALARIA

Zipreko liga utzita, Errumanian ari da denboraldi honetan. Jauzi bat da kirol mailari dagokionez, zailtasun handiko erronkari aurre egin nahi diolako klubak

Mikel Arberas ANDOAIN

Txipreko ligatik, Errumaniara egin duzu jauzi. Nolako izaten ari da egokitzea?

Egia esan Viitorul taldean egokitzea oso erraza izan da. Azken finean, entrenatzailea espainiarra da eta, gainera, Errealeko bigarren entrenatzaile gisa aritu zen duela bi urte. Horrez gain, talde teknikoa ere jatorri espainiarrekoa da, baita taldeko hiru

jokalari ere; beraz, asko lagundu naute egokitzearekin. Ez hori bakarrik, Zipren denbora luze egon ostean ingelesez ondo komunikatzen ikasi dut. Guztiak laguntzen du taldekoekin harremanetarako. Laburbilduz, oso gustura nago eta taldean familiaritateko giro polita sumatzen dut.

Jauzia handia izan da bi taldeen artean?

Taldearen artean ikusi dudana ezberdintasun handia da, Viitorul taldea askoz ere profesionalagoa da Ziprekoa baino. Nabarmendu nahi dut, Limassol taldean oso gustura nengoela, baina kirol aldetik jauzia eman nahi nuen. Zipreko taldeak zituen helburuak ezin dira alderatu, egun, Viitorularen dituenarekin. Errumanian helburuak garbi ditugu; lehenengo lauren artean gelditzea

dugu xede, eta ahal izanez gero, liga irabaztea. Horrelako zerbait bilatzen ari nintzen. Alderdi ekonomikoa alde batera utzi eta gauzak garbi zituen talde batean sartu nahi nuen. Zentzu horretan, jauzi interesgarria eta aukeraketa ona egin dudala uste dut. Hala ere, denborak erakutsiko dit aukeraketa ona izan den ala ez.

Taldea berria da, 2009an sortu zen...

Aipatu duzun bezala taldea berria da eta Gheorghe Hagi jokalaria ezagunak sortu zuen; besteak beste, Bartzelonan, Real Madriden edo Galatasaray taldeetan jokatu zuen. Errumanian pertsonaia oso ezaguna da eta ia jainkotzat dute, Espainian edo Argentinan Messi izango balitz bezala.

2009an taldea hartu zuen maila baxua zuenean, baina urte urte lan handia egin eta maila gorenerako bidea hartu zuen. Gauzak horrela, duela hiruzpatalau urte liga irabaztea lortu zuten. Egin duten lana izugarria dela ikus daiteke.

Zer moduz hasi duzu denboraldia Liga berrian?

Oso pozik nago orain arte egin dudarekin. Taldera iritsi nintzen mementotik hamaikakoa sartu zidan entrenatzaileak. Jada sei partidu jokatu ditugu eta guztietan egon naiz. Zentzu horretan oso kontentu nago eta lortu ditugun emaitzek ere asko lagundu digute; lau norgehiagoka irabazi eta bi berdinketa eskuratu ditugu.

Koronabirusak nola eragin du Errumanian? Normaltasunez jokatzeko aukera duzue?

Errumaniara etorri nintzean koronabirusaren kasuak baziren, baina Espainiarekin alderatuta ez zen horrenbestera. Egia da ere, azken egunetan kasuen berriagertze ugari agertu direla; horregatik, semearen eta beste haurren ikastetxeak itxi behar izan dituzte. Tabernetan soilik terrazetan egon zaitezke, hau da, ez dituzte guztiz itxi, baina muga asko ezarri dizkie. Horrez gain, musukoa erabili behar dugu kaletik goazenean. Datu gisa, herri bat gune gorrian ko-

katu dute, hortaz, bertakoek ezin dute ez sartu, ez atera. Esanak esan, kasuak egon badaude, baina Espainiako egoera baino hobea da.

Martxoan eten zuten futbola Errumanian, Espainian bezalaxe, eta maiatzean berriro ekin zioten ligari. Aurtengoan, denboraldia normaltasunez hasi dugu, nahiz eta, jarraitzaileek ezin dituzten partidak zelaietatik ikusi.

Gehitu beharra dago, geure taldean arazoak eduki ditugula koronabirusari dagokionez, izan ere, positiboak hauteman dituzte jokalariek eta langileen artean. Hala eta guztiz ere, legeak esaten duenaren arabera, taldean 13 jokalariek edukiz gero, jokatu egin behar da. Azken bi partiduak zortzi bajekin jokatu eta biak irabazi ditugu.

Bi urterako kontratua sinatu duzu. Etorritakoari begira Euskal Herrira itzultzeko asmoa duzu?

Inoiz ez dira atea itxi behar, baina egia da etxetik irtetzen zaren mementoan futbol merkatua Europarantz zabaltzen dela, hau da, zailagoa da buelta egitea. Hala ere, ez dago jakiterik, ordea, argi dago Euskal Herrira itzultzea gustatuko litzaidakela. Egia esan, aukeraren bat egonez gero ahal dudana guztia egingo dut etxera bueltatzeko, oso pozik joango nintzateke. Oso gustura nago hemen, baina beti esan izan dut, etxean bezala inon ez.

Ibilbide handiko kirolari profesionala zara jada, non edo nola amaitu nahiko zenuke ibilbidea, hala oraindik goiz da horretan pentsatzen hasteko?

Futboleko umetan hasi nintzen eta profesional gisa 22 urterekin egin nuen debuta Errealean. Orain 29 urte ditut, 7 urte daromatzat futbol profesionalen lehiatzen eta, egia esan, oso pozik nago egiten ari naizen ibilbidearekin.

Oraindik goiz da kirol ibilbidearen amaieraz hitz egiteko. Oraindik mementorik onenean nagoela sentitzen dut eta datozen urteetan futboleko jokatzeko jarraitu nahiko nuke.

"LIMASSOL TALDEAN OSO GUSTURA NENGOEN BAINA KIROL MAILAN JAUZIA EMAN NAHI NUEN"

"VIITORUL HAGI JOKALARI EZAGUNAK SORTU ZUEN. IA JAINKOTZAT DUTE ERRUMANIAN"

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIK AIURRI.EUS GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 26

ANDOAIN Erakusketa

Miren Barrena, Leire Lacunza
Miranda eta Ibon Landa Amutxategi.
Azken eguna, abenduaren 5a.
Bastero. Erakusketa gela.

ANDOAIN Sariketa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari sari
banaketa ekitaldia.
19:00 Bastero.

ANDOAIN Euskaraldia

Ahobizi edo Belarriprest txapak
jasotzeko azken eguna. Izen-ematea
azaroaren 24an amaitu zen.
Azken eguna: Urrats.

URNIETA Argazki-lehiaketa

Andoingo Udalak egin ohi duen
bezala, Urnietako Udalak 2021eko
egutegia herritarren argazkiekin osatu
nahi du.
Azken eguna: Abenduak 4.

OSTIRALA 27

ANDOAIN Mahai-ingurua

"Etxeetako langileen egoera". Isabel
Otxoak eta Maitelan eta Emagin.
Sarbia eta informazioa, astekariko
12. orrialdean.
19:00 On line.



Gema Matarranz aktorea. HISTRION

URNIETA "Juana la loca" antzezlan

Histrion teatro konpainiaren eskutik, Gema Matarranz eta Enrique Torres
aktoreak igoko dira taulagainera. Juana I erregina, estatu arrazoia medio, 16
urterekin Felipe El Hermosorekin ezkondu zen. Alarguntzean 46 urte pasa zituen
Tordesillasko komentuko batean, Fernando Katolikoak behartuta. Testuinguru
horretan kokatzen da antzezlan.
19:00 Sarobe, Urnieta. Azaroak 29, igandea. 5 euro.

LARUNBATA 28

ANDOAIN Tailerra

Autodefentsa feminista. Izen-ematea:
berdintasuna@andoain.eus.
10:00-14:00 / 16:00-20:00
Allurralde.

ANDOAIN Kontzertua

Golden Apple Quartet eta Udal Musika
Eskolako Bandaren kontzertua. Los
Xey taldeari omenaldi berezia
eskainiko diote. Xabier Zabala
musikariak egokitu ditu partiturak,
Bandarekin batera aritzeko.
19:00 Bastero.

Oinarriak

- Kokapena: Argazkiekin Urnietan kokatuak izan behar dute. Argazki bakoitzaren kokapen zehatza adierazi behar du.
- Izenburua: Argazki bakoitzak izenburu bat izan behar du.
- Epea: Abenduaren 4a izango da argazkiak aurkezteko azken eguna.
- 5 aukera: Gehienez 5 argazki aurkez daitezke.

Aurkezteko bi modu

- Presentzialki: Lekaion, astelehene ostiralera. Orduetia: 09:00-13:00 eta 16:00 -18:00. Ostegun eta ostiral arratsalde itxita.
- Wetransfer bidez: kultura@urnieta.eus e-postara idatziz.

Urnietako egutegia osatzeko argazki-lehiaketa deitu dute

Urnietako Udalak herritarrek egindako argazkiekin argitaratu nahi du 2021eko egutegia

Erredakzioa URNIETA

Aurtengo Udal egutegian aldaketa nabarmena izango da. Egutegiko argazkiak aukeratzeko lehiaketa antolatuko du Urnietako Udalak, "azaleko irudia eta hila bete bakoitzerako erabiliko diren argazkiak aukeratzeko". Lehen edizio honetan gaia "Urnietako" izango da. Udalak argazkizaleei gogoko duten herriko txoko horri argazkia atera eta lehiaketara aurkezteko dei egiten

die: "2021. urteko egutegian Urnietako txokorik maitatuenak ezagutarazi nahi dira, esanahi berezia dutenak edota zirraren bat sorrarazten digutenak. Horregatik, aurtengo gaia Urnietako da. Egilearen emozioak, esperientziak, bizipenak, historia eta leku jakin horrekin daukan lotura afektiboa argazkiaren ardatz izango dira eta azken emaitzan islatuko dira". Udalak, dena, 13 argazki aukeratu ditu.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak bikote

Azaroaren amaieran egun bereziak izan ditugu etxean. 24an Alusen urtebetetzea izan da eta 27an Haizearena.



ANDOAIN

Zorionak Izaro
Izaro Etxabe
Berazak 4 urte
beteko ditu
abenduaren
12an! Nola
handitu zaren!
Segi orain arte
bezain jator!
Muxuak etxekoan
partetik!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 28, igandea 29

Zatarain: Elizondo, 6. Arteta z/g.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 28, igandea 29

Aguado: Kale Nagusia 21, behea.
943 550 327. Astigarraga.

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

El año que dejamos de jugar
Larunbata, 28.
19:00.
Igandea, 29.
19:00.

Astelehena, 30.
19:00.

HAURRENTZAT

"Trolls 2 Gira Mundial"
Larunbata, 28.
16:30.
Igandea, 29.
16:30.



SINOPSISIA



El año que dejamos de jugar

Zuzendaria: Caroline Link. **Gidoia:** Anna Brüggemann, Caroline Link. **Judith Kerren** eleberrian oinarrituta. **Aktoreak:** Riva Krymalowski, Oliver Masucci, Carla Juri... **Herrialdea:** Alemania (2019). **Generoa:** Drama, Nazismoa. **Iraupena:** 119 min.

Hurtzaroa nazismo garaian

Anna Berlinen pozik bizi den bederatzigarren urteko hurtzaroa da. Hitlerren bapateko igoerak gizartea erabat aldaraziko du, baita Annaren bizitza ere. Judutar jatorriko familia da,

eta Alemania uzteko erabakira hartu dute. Annak eta bere familiak ihes egingo dute, Siutzara zahazki.

Erbestea haurren ikuspegitik lantzen den filma da.

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN EZ ZAITEZ IKUSLE HUTS BAT IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:

berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro